

Eskandalu politikoak hauteskunderen aurretik argitzea nahi du Ardanzak

«Zuzenbide estatua zalantzan jarri dute eskandaluek», esan du EAeko lehendakariak


Hauteskunderak aurreratzea ez da garrantzitsuena une hauetan, Jose Antonio Ardanza lehendakariak esan duenez, «zuzenbide estatua zalantzan jarri duten eskandalu politikoak argitzea» baizik. Ikerketa azken muturreraino egitearen alde agertu da, gainera.

CARTAGENA (KOLONBIA)

Espaniako giro politikoa izan zuen mintzagai EAeko lehendakariak Kolonbiara egindako bidaiaren azken egunean. GAL-en auziarekin lotutako informazioak direla eta, garrantzitsuena ez da, Ardanzaren arabera, hauteskunderak aurreratzea, eskandalu politikoak argitzea baizik.

«Hauteskunderak aurreratu ala ez baino oinarritzokoagoa da gertaerak argitzea azken muturreraino, eta argi geratu behar du zuzenbide estatua badagoela, demokrazia badagoela eta legez kanpoko ekintzak ordaindu egin behar direla. Gainera, ezin daiteke halako inpunitatez jokatu gehiengo absolutua izan arren», adierazi zuen Ardanzak Kolonbiako Cartagena hirian.

Ricardo Garcia Danborenea buruzagi sozialista ohiaren adierazpenei sinesgarritasuna



Kolonbiara egin duen bidaiaren amaieran hitz egin du Ardanzak GALen auziaz.

kendu nahi izan zion, bestalde, lehendakariak. Hala ere, azken urteotako eskandalu politikoek «egoera delikatu» ekarri dutela azpimarratu zuen.

«Danborenearen adierazpenei ez zaie bestelako garrantzirik eman behar eta ez dugu esan duena goitik behera sinetsi behar. Baina susmoak zabaldu ditu eta guztion onerako argitu egin behar dira kontu horiek», esan zuen.

«Edozein aitzakia hartuta»

une oro hauteskunderak aurreratzearen alde agertu diren alderdiak kritikatu zituen, halaber, Ardanzak: «Hau dela edo bestea dela, alderdi batzuei berdina zaie, beti hauteskunderak aurreratu behar direla esateko aprobetxatzen baitute, PPK batez ere. Jarra hori ez da bidezkoa, desprestigioa ekartzen duelako».

Espaniako egoera politikoa «delikatu» dela deklaratu zuen lehendakariak. «Azken bi edo hiru urte hauetan eskandaluak

azaleratzen ari dira bata bestearen atzetik, mota guztietako eskandaluak. Ustelkeri kasuak edo Guardia Zibileko zuzendari ohia gaur kartzelaren egotea, esaterako. Orain, gainera, Felipe Gonzalez nahasten badute, uste dut oso larria dela egoera», deklaratu zuen. GALen auzia kaltegarria dela adierazi zuen halaber, «ETAren ekintza batzuk legitimatzen dituelako». Auzi hau sistemak ordain dezakeen beldur agertu zen Ardanza.

Barrionuevoren kontrako frogak badaudela dio fiskalak

DONOSTIA


Jose Barrionuevo Barne ministro ohiaren kontrako frogak badaudela uste du Jose Aranda Entzutegi Nazionalako fiskalak, eta kasua Auzitegi Gorenera eramateko eskatu du. Felipe Gonzalez Gobernuko presidentearen kontra, berriz, delitu aztarnarik dagoenik ez du aipatu fiskalak bere txostenean.

Aipatu txostena Baltasar Garzon 'GAL auzia' darman epailearen esku dago, eta honek datozen egunotan igorriko dio idazki bat Auzitegi Gorenari Barrionuevoren kontra dauden zantzuak azalduz. Barrionuevo auzipetu ahal izateko Auzitegi Gorenak suplikatorioa eskatu beharko dio Madrilgo Diputatuen Kongresuari. Izan ere, Barne ministro ohi alderdi sozialistaren diputatua da egun.

Fiskalaren txostenak Felipe Gonzalez Espainiako presidentea aipatu ez badu ere, oraindik ez dago garbi Baltasar Garzonen jarrera berri izango ote den. Zenbait iturriaren arabera, Gonzalezen izena aipatuko du epaileak, baina bere kontrako testigantza —Ricardo Garcia Danborenea PSOEko buruzagi ohiak egindakoa alegia— GALen auzian inplikatzeko duen edo ez zehaztu gabe.

**B
I
O
K

E
T
I
X
E
G
I
N
T
Z
A**



492501

908-676313

IGELTSEROTZA

ERAIKUNTZA
OROKORRA

PROMOZIOA

S. L. OIARTZUN

LOIOLAKO KULTUR ETXEA

MUSIKA

VII. Nazioarteko Folklore Jaialdia

ANDINO. Ballet Folkloriko Nazionala (Bolivia)
HORITSVIT. Arte herrikoien taldea (Ukrania)
KRESALA. Dantza Taldea (Euskal Herria)




EGUNA: Uztailak 30

ORDUA: Arratsaldeko 6.30etan

TOKIA: Loiolako frontoian

SARRERA DOHAINIK



UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA
NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOIA

IKASLE BERRIEK LEHENENGO KURTZOAN MATRIKULATZEKO EGUTEGIA

1995/96

Nafarroako Unibertsitate Publikoan aukeratutako titulazioko lehenengo kurtsoan unibertsitate-ikasketak egiteko onartuta dauden ikasleek, behean aipatutako egunean egin beharko dute matrikula. Hala egin ezean, ikasleak galdu egingo du eskatutako plaza betetzeko eskubidea, eta hori, lehentasun ordenaren arabera, dagokionari emango zaio.

Uztailak 26:

- ELEKOMUNIKABIDE-INGENIARIA
- INGENIARI INDUSTRIALA
- EKONOMIAN LIZENTZIATUA
- ENPRESEN ADMINISTRAZIO ETA ZUZENDARITZAN LIZENTZIATUA

Uztailak 27:

- INGENIARI TEKNIKOA NEKAZARITZA ETA ABERE-HAZKUNTZAKO USTIATEGIETAN
- INGENIARI TEKNIKOA BARAZKI-FRUTAZAINTZA ETA LORAZAINTZAN
- INGENIARI TEKNIKOA NEKAZARITZAKO INDUSTRIETAN
- DIPLOMADUNA ENPRESA ZIENTZIETAN

Uztailak 28:

- NEKAZARITZA INGENIARIA
- DIPLOMADUNA ERIZAINTZAN
- DIPLOMADUNA LAN HARREMANETAN
- LIZENTZIATUA ZUZENBIDEAN

Uztailak 31:

- INDUSTRI INGENIARI TEKNIKOA
- DIPLOMADUNA GIZARTE LANETAN
- HAUR HEZKUNTZAKO MAISUA
- LEHEN HEZKUNTZAKO MAISUA
- ATZERRIKO HIZKUNTZAKO MAISUA
- MUSIKA HEZKUNTZAKO MAISUA

Abuztuak 1:

- LIZENTZIATUA SOZIOLOGIAN

Matrikula bukatuta, gelditzen diren tokiak bete egingo dira, lehentasunezko irizpideak errespetatuz, plaza guztiak bete arte. Kalifikazio ordenari jarraiki, matrikulatzeko posibilitatea jakinaraziko zaio ikasleari, eta zein epetan egin beharko duen hori. Matrikula irailan egingo da.

MATRIKULA ORRIAK: Uztailaren 17tik daude salgai Atezaintzan (Ikasgelen eraikineko behe-kopiantan — Arrosadiako kanpusa).

MATRIKULA: Aipatu egunetan Esperimentalen eta Ez-esperimentalen bulegoetan (Ikasgelen eraikineko beheko plantan — Arrosadiako kanpusa). Ordutegia: 9:00etatik 14:00etara.